

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 181/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea aldatzeari Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 53/2021 Erabakia

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaien Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko "Gauzazko laguntzak" modalitateko laguntzak emateko oinarri arautzaileei. Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 12ko 12/2018 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori.

Aipatutako 32/2017 Foru Dekretuaren 6. artikuluan, espedienteak sailkatzeko eta laguntza baliokidearen zenbatekoa kalkulatzeko irizpide objektiboak ezarri ziren.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 53/2021 Erabakiaren bidez, Arabako landa bideen mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen 2021eko deialdia onetsi zen.

53/2021 Erabakian erakunde bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ezarri zen, erakunde bakoitzari dagozkion eta Arabako Foru Aldundiaren Bide Erregistroan sartuta dauden bideen luzeraren arabera, honako tarte hauekin:

BIDEEN LUZERA, ERAKUNDEKO (KILOMETROAK) (KM)	GEHIENEKO ZENBATEKOA, ERAKUNDEKO (EURO)
0-25 km	20.000,00
25 baino gehiago-50	40.000,00
50 baino gehiago-75	60.000,00
75 baino gehiago-100	80.000,00
100 baino gehiago-125	90.000,00
125 baino gehiago	100.000,00

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak jakinarazi du 53/2021 Erabakian ezarritako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez datorrela bat 32/2017 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako landa bideen mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen oinarri arautzaileen 6. artikuluan ezarritakoarekin, eta urtero egiten den deialdi bakoitzean alda daitekeela; beraz, aldatu egin behar da laguntza lerro horretarako 2021eko deialdian.

Ikusirik aginduzko txostenak, haien ondorioz, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onspena ematea Arabako landa bideen mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen 2021eko deialdia onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 53/2021 Erabakia aldatzeari, espedienteak sailkatzeko eta laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko irizpideak sartuta, taula honen arabera:

IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA
1. Erregistroko bideen luzera. Puntu bat erregistroko bideen kilometro bakoitzeko	Puntu bat kilometro bakoitzeko
2. Mantentze lanaren beharra, ukitutako elementuaren arabera	
Sastrakak kentzeko eta garbitzeko egin beharreko jarduketak	1-3
Drainatze elementuetan egin beharreko jarduketak	1-3
Egiturazko elementuetan egin beharreko jarduketak	1-3
Irizpide hori modu bateratuan zehaztuko da herriko bideen guztizkoan, eta puntu batetik hirura bitartean aplikatuko da ezarritako talde bakoitzean, udalerriko bideen guztizko luzeran duten eraginaren arabera	

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondorengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE